



2024/2025 ikasturteko bigarren lau hilekorako (otsail-ekain) oinarriak

Bost ordu/barnetegiko liberazioen deialdia eta modulu aldaketa 5 ordutik 2 ordura edo alderantziz

1. Ikastaro eskaintza

MODULUA (ikastaro mota)	OHARRAK
Barnetegia	Guztiek eska dezakete , bai ikasturte honetan lehenengo aldiz otsailean eskolatzen direnek, bai urriko eskolaldian hasitakoek.
Egunean 5 orduko ikastaroa	Urrian hasitakoek otsailetik aurrera modulu hauetan jarraitu nahi badute berriz egin behar dute eskaera, nahitaez.
Egunean 2 orduko ikastaroa	Bakar-bakarrik , urritik 5 orduko ikastaroetan edo barnetegietan dabiltzanek eska dezakete modulu hau.

2. Ordu kreditu sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez HAEEK eta UPV/EHUK sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri** zen (2005eko abenduaren 25eko EHAA (239. zk.), I. kapitulua).

Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturterako. Horrela, bada, **ordu kreditu negatiboa** dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2024/2025 ikasturteko bigarren lau hilabeterako, ez badute 2024ko urrian kreditu positiboarekin hasi.

Oharra: Behin betiko zerrendetan aldaketak gerta daitezke ordu kredituen sistemaren ondorioz, eta langile batzuk baztertuak gerta daitezke saldo positiborik ez badute.



3. Betebeharreko baldintzak

Deialdian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

3.1. UPV/EHUko Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (*TEKAZEL*) taldeko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean, aldi baterako lan kontratua duen langilea lanpostu hutsean edo langile egonkorrak).

3.2. Salbuespenak:

3.2.1. Onartuak izateko aukera izango dute ordezkapen sindikala egiten ari diren bitarteko funtzionarioak, betiere bi urte baino gehiago daramatzatenean egoera horretan, eta plangintzaren helburu nagusien irizpideak kontuan izanda: derrigortasun data eta unitate mota. Arestian, lehenengo puntuko parentesi artean agertzen direnen tratamendu bera izango dute hauek.

3.2.2. Onartuko dira baita ordezkoa egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langile laboralak, betiere langile horiek 3 urteko zerbitzuak badituzte UPV/EHUⁿ. Beharrezkoa izango da, baita ere, lan kontratuak indarrean jarraitzea liberazioa hasten den momentuan. Liberazioa kontratuaren edo izendapenaren iraupenaren menpe egongo da.

3.3. Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edo baliokidea den agiririk ez izatea.

4. Irizpideak lehentasun mailaren arabera

Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehentasunaren arabera antolatuak: lanpostuaren **derrigortasun data** (gaindituta, gainditzeke, data gabekoa), lanpostua kokaturiko **unitate mota** (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen **lan egoera** (karrerako funtzionarioa, lan kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean, aldi baterako lan kontratua duen langilea lanpostu hutsean). Lehentasun honi jarraituko zaio:

- 4.1. Derrigortasun data gainditua duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 4.2. Derrigortasun data gainditua duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan kontratua duten langileak direnean.
- 4.3. Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 4.4. Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan kontratua duten langileak direnean.
- 4.5. Derrigortasun data ez duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 4.6. Derrigortasun data ez duten lanpostuak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan kontratua duten langileak.



- 4.7. Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainerako langileak ere onartuko dira. Eta honako irizpideen arabera:
- 4.7.1. Euskara ikasten egon izana 2022/2023 edo 2023/2024 ikasturtean (lehentasuna dute 2023/2024 ikasturtekoek 2022/2023koen gainetik)
 - 4.7.2. Gainditutako euskara maila (lehentasuna mailarik handienak du)
 - 4.7.3. UPV/EHUn lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila gainerako langileentzat ere kontuan hartuko da.

Oharrak:

- Ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko erreferentziatzen hartu behar den derrigortasuna jabearen lanpostuari dagokiona da eta ez lanpostu hori behin-behineko izaeraz betetzen duena (Zerbitzu betekizunetan dauden funtzionarioak, etab.)
- 2023/2024 ikasturteko bigarren lau hilabetekoan 5 orduko liberazioa izan duten eskatzaileen kasuan:
 - Lehentasuna izango dute %100 probetxua izan duten kideek, hau da, egindako modulu guztiak gaindituak izan dituztenek.
 - Baztertuak izango dira aipatutako aldi horretan modulu bat ere gainditu ez dutenak. Halere, onartu ahal izango da eskaria eskatzaileak euskalduntze prozesuan eduki duen bilakaera aztertu ondoren.

5. Eskaera

5.1. Eskaerak betetzeko zehaztasunak

- 5 ordu/barnetegiko eskari berria edonork eska lezake baldintzak betetzen baditu. Baina 2 ordu lanorduetan eta 2 ordu lanorduz kanpo, **bakarrik eskatu ahal izango dute 2024/2025 ikasturteko lehenengo lau hilabeteen 5 ordu edo barnetegiko moduluan daudenak**. Ezingo du eskaririk egin egoera horretan ez dagoen inork.
- Eskari orrian eskatzen diren datu guztiak egon beharko dute zehaztuta, batez ere zein hiriburu/herritan, ze ikastaro mota eta zein ordutegitan eskatzen den.

5.2. Eskaerak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko epea **urriaren 25tik azaroaren 7ra arte** izango da. Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

- **Oharra:** eskariak egiteko azken eguna helduta nagusiaren baimenik lortu ez bada, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango da baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko da.
- **Oharra: nagusiak, baimena ukatuz gero**, txosten bat egin beharko du, langile bakoitzeko, baimena ez emateko arrazoiak azalduz. Txosten hori Euskalduntze Batzordeari epe honetan bidali beharko dio **azaroaren 15tik 22ra arte**. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko. Txostenak posta elektronikoen bidez bidali behar dira helbide honetara: euskara-plangintza@ehu.eus.



5.3. Eskaerak non aurkeztu

Eskaerak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/forms/shared/-/form/57132991>. Eskabide bakoitzeko inprimaki bana bete behar da.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoan erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

6. Lizentzia erabiltzeko baldintzak

6.1. Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuritzea

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPek antolatutako taldeetatik at baldin badaude, euskaltegiaren egutegiari jarraituko diote.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu.

Gogorarazten zaie ikasle guztiei **huts egite guztiak zuritu behar dituztela Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan**, eta euskaltegian ere abisatu.



Hutsak gertatu direnetik, hilabeteko epea egongo da berauek zurrizteko. Lizentziei eta baimenei buruzko arategian kontuan hartzen diren asistentzia faltak zurriz ahal izango dira bakarrik, bertan ezarritako justifikagiriak aurkeztu behar direlarik.

Egindako hutsak ezarritako epean zurrizten ez dituen langileak, eskolatik kanpo utziko du Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak. (Aurrerago, "asistentziari buruzko arauak" ikusi).

6.2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogara

Liberazio eta ikastaro hauetan onartuak diren langileek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, beti ere ondoren aipaturiko ditugun azpimailak egiten ari badira:

- **Lehen hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, **B1.1.** edo **B1.2** azpimailak egiten egotea.
- **Bigarren hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, **B2.1** edo **B2.2.** azpimailak egiten egotea

Hala eta guztiz ere, lehenengo hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik eta puntu honetan aipaturiko urratsen bat egiten ari diren langileek, lehen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogara edo bigarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogara aurkezteko aukera izango dute.

- **Hirugarren hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, **C1.2** azpimaila egiten egotea.

Hala eta guztiz ere, bere lanpostuan 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik daukan langileak C1.2. azpimaila egiten ari bada, derrigorrez 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren probetara aurkeztu beharra dauka.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

6.3. Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.

Langileren batek ikastaro honetan diharduen bitartean dagokion lanpostuko HE egiaztatuko balu, jarraitzeko aukera izango du ikastaroa bukatu arte. **Jarraipen hori nagusiaren oniritziarekin izan beharko du.**

Erreferentziazko hizkuntza eskakizuna **bigarrena** izango da lehenengoa eskatzen zaien langileentzat.

7. Onartuen zerrendak

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira iragarki tauletan (UPV/EHU - Iragarki-ohol korporatibo Sistema: <https://www.ehu.eus/eu/web/ehutaula/menua>), baita Euskara web orrian ere: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/indarreko-deialdiak>

Behin-behineko zerrendak azaroaren 14an argitaratuko dira eta interesdunek azaroaren 15etik 22ra izango dute erreklamazioak aurkezteko epea. Erreklamazioak deialdi honetako 5.3 puntuan azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira, Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri dagoen zuzenketa-inprimakia, dokumentazioa eta erreklamazioak beteaz.

Hutsak zuzentzeko, dokumentazioa gehitzeko eta erreklamazioak egiteko epea amaitu eta Euskalduntze Batzordean aztertu ondoren, behin betiko zerrendak abenduaren 13tik aurrera argitaratuko dira lehen aipaturiko web-orrian, Euskalduntze Batzordea bildu

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ondoren.

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E
INTERNACIONALIZACIÓN



Eranskina

IKASTAROEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Administrazioko taldeak	Bestelako taldeak (matrikula orri pertsonalizatuarekin)
<p>5 orduko ikastaroak otsailak 17 - ekainak 20 (gutxi gorabeherako datak) Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00 - 14:00</p> <p>2 orduko ikastaroak otsailak 18 - maiatzak 30 (gutxi gorabeherako datak) Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00 - 10:00</p>	<p>Euskaltegietako beste taldeetan (solte) eskolatzen diren ikasleek, administrazioko taldeak ez direnak, tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia izango dute, eta matrikula orriarekin arituko dira.</p> <p>Barnetegiko ikastaroak Zornotzako edo Lazkaoko Barnetegietan egin ahalko dira soilik.</p> <p>Ikasle hauek ere matrikula orriarekin eskolatuko dira. Eta barnetegiko egutegia eta ordutegia jarraituko dute.</p> <p>Maizpide (Lazkao): Otsailak 17 - ekainak 27 (gutxi gorabeherako datak)</p> <p>Aurten Bai (Zornotza): Otsailak 17 - ekainak 27 (gutxi gorabeherako datak)</p> <p>Lanorduz kanpoko ikastaroak. matrikula orriarekin arituko dira eta ikasleek kasuan kasuko euskaltegiaren egutegia izango dute.</p>

ORDU KREDITUA

Lanorduetako eta lanorduz kanpoko ikastaroei dagokienez, ordu kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeetako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu kredituak ezartzen dituenena. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.).

Ondorioz, euskara ikastaroa hasteko, beharrezkoa izango da ordu kredituaren saldoa **aldekoa** izatea. Ordu kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du. Ordu kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko euskara ikasteko eskabide gehiago, gainditu beharreko hizkuntza eskakizuna lortu arte.

Ordu kredituaren sistema ziurtatzeko, maiatza/ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPek ordu kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.

LANORDUETAKO IKASTALDEETARAKO MAILARETA PROBAK



Lanorduetako taldeak antolatzeko, IVAPek ezinbestekoa du eskatzaileen euskara maila jakitea. Horretarako, IVAPek **mailaketa probara** deituko du. Dena dela, eskatzailea IVAPekin eskolatu bada azken ikasturtean, azken ebaluazioa erabiliko du hurrengo kurtsoko hasiera maila ezartzeko. Bestalde, administrazioko ikastaldeetara ez doazen eskatzaileak ez ditu deituko.

Eskatzailea mailaketa probara **aurkezten ez bada, IVAPek bazter utziko du haren eskaera**. Hala ere, aparteko aukera bat izan dezake, aurkeztu ez izana egoki eta garaiz arazoitzen badu. Horretarako, haren erakundeak (UPV/EHUk) idazki bat bidali behar du IVAPera, beranduen ere, **proba egunetik 2 egun balioduneko epean**. Aparteko dei honetara ere aurkezten ez bada, bertan behera utziko du IVAPek haren eskaera.

Mailaketa probak 2025ko urtarrilaren lehen hamabostaldian egingo direla aurreikusten du IVAPek.

MATRIKULA ORRIEI BURUZKO OHARRAK

Matrikula orria **agiri ofiziala** eta pertsonala da; bertan ikaslearen izen abizenak daude jasota eta ezin du beste inork erabili.

Matrikula orriaren bitartez eskatzaileak berak aukeratutako euskaltegi publikoan edo pribatu homologatuan egin dezake matrikula. Ikastaroak, betiere:

- **HABEk homologatuak** izan behar dira.
- **Iraupena:** Urritik edo otsailetik kasuen arabera, ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko ikastaroek eta egunean 5 orduko ikastaroek lauhileko iraupena izan behar dute.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria, IVAPeko zigilu originalarekin euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. Arau orokor moduan, matrikula orria euskaltegian entregatu duen langileari ikastaroaren lehen egunetik zenbatuko zaio asistentzia, nahiz eta ikaslea beranduago hasi eskolan.

Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du aipatutako matrikula orria Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara (**otsailaren 24a baino lehen**), unibertsitateak IVAPera bidaltzeko. Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero apurtu edo galdu delako, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzara jakinarazi beharko du inon ez dela matrikulatu IVAPera jakinarazteko.

Kontuan izan behar da langileak bere matrikula orria euskaltegian entregatzen duen unean gauzatzen duela ikastaroaren matrikula. Une horretatik aurrera langilea matrikulatuta dago euskaltegian eta IVAPek ordaindu egin behar du langilearen matrikulari dagokion kostea.

Diru baliabideen erabilera zentzuzkoa eta arrazoizkoa ziurtatu ahal izateko, langileek aprobetxamendu egokia lortu beharko dute ikasturtearen buruan.

ESKOLETAN HASTEAK

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskoletara. Didaktika eta antolakuntza arazoiak direla medio **IVAPek ez du onartuko beranduago hasterik eskoletan**. Beraz, IVAPek bertan behera utziko ditu egun horretan eskoletan hasita ez dauden langileen eskaerak eta, ondorioz, ez du bere gain hartuko euren matrikula orrien kostua.



Eskola hutsegiteak **ikastaroaren lehen egunetik** zenbatuko dira, nahiz eta ikaslea beranduago hasi ikastaroan.

ESKOLARA JOATEARI UZTEA

Ikastaroa hasi ondoren norbaitek behin betiko uztea erabakitzen badu, berehala jakinarazi beharko dio IVAPi, ikastaroa utzi izana IVAPeko Solaskidegune aplikazioan erregistratuko duen solaskidearen bidez.

Ikastaroa uzteko eskaerak aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan araututako edozein bide erabiliz.

Ikastaroa utzi izanaren jakinarazpena aurkezten den egunetik aurrera, ordu-kredituaren zenbaketa gelditu egingo da.

Hala ere, autoikaskuntzako ikastaroen kasuan, ikastaroa uzteak ez ditu zenbaketa horiek geldiaraziko. Ondorioz, lehen bertaratzeak erregistratzean, ordu-kreditutik deskontatuko da ikastaroaren ordu-kopuru osoa (190 ordu), interesdunak prestakuntza-ekintza amaitu baino lehen utzi badu ere.

Eskola uzteko data jakinarazpenaren sarrera-data izango da HAEEko erregistroan. Ondorioz, HAEEri ikastaroa utzi duela jakinarazten ez zaion bitartean, ordu-kredituaren zenbaketa ez da etengo. Beraz, ordu-kredituaren ondorioetarako, oso garrantzitsua izango da uztearen jakinarazpena lehenbailehen bidaltzea HAEEra.

HAEEk ikaslearen eskola uztea jakinaraziko dio dagokion erakundeari.

IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA DATUEN BABESA

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruz Europako Parlamentuaren 2016/679 EB Erregelamenduaren 13. artikuluan eta Kontseiluaren apirilaren 27ko xedatutakoarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure datuak UPV/EHUren ardurapeko fitxategi batean sartuko direla, bai eta honako alderdi hauetan ere: datuak «TERAZELekoen Euskara Hizkuntza Prestakuntza» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. Euskara hobetzeko eta euskarazko hizkuntza-eskakizuna lortzeko prestatzeko ikastaroak egiteko eskabideak kudeatzea da tratamenduaren helburua.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen datuak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP) jakinaraziko zaizkio. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, baita beste eskubide batzuk ere, helbidean eskuragarri dagoen <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/babestu> informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Tratamenduari buruzko informazio osoa hemen dago: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0061>

Horrez gain, Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzeta Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E
INTERNACIONALIZACIÓN

egingo da. **Horregatik eskari orrian onespena eman beharko du langileak laukitxoak markatuz. Bestela eskaria ez da onartua izango.**

Lankidetzaren Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin dituzten, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute azkenik, datu lagapenak egitea Hilduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABERi-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo da. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.